

Internet en irristatzen

jabi zabala

irristatzen@egunkaria.com

Festarik festa

Sareak lagunduko digu parrandarako planak egiten


San Joan gauaz geroztik gauak —eta egunak ere bai— ez dira berdinak izaten gure euskal zeruotan. Gauak, luzeagoak izanagatik, askori laburrak egingo zaizkie udan. Gure hiztegi urrira neguan ahaztutako berbak ekartzen ditugu berriro; *txosna* esaterako. Elizkoia izan ez arren, udako santu guztien zerrenda ezagutzen duenik ere izango da, seguruenik: sanjoanen ostean, Pedro, Martzial, Elixabete, Fermin eta beste izen asko pilatuko dira, bata bestearen ostean, urriko sanfaustoak heldu bitartean.

Sareak noizik behineko santuzaleon agenda prestatzen laguntza emango digu egunotan. Proba egin dezakegu edozein topatzaile-

tan, *jaiak* hitza idatzita, eta hainbat erreferentzia aurkituko ditugu ziberespazioan euskal herriotako jaiari buruz informazioa eskuratzeko.

Informazio hori biltzen duen webgunea dugu *jaiak.net* direktorioa. Bertan, egunaren, herrialdearen edo *mobidaren* arabera aukera ditzakegu festak. Beste aukera bat dugu festarik festako *rallye* bat segitzea.

Iragan berri diren sanmartzialak ageri dira *Altz@net* atari berrian. «Altzako hiribildua-



ren» webgune moduan iragarri zuten iragan asteen Altzako Historia Mintegiko arduradunek. Jai berberak baina aldarrikapen ikuspegi batetik islatzen dira Irungo alardeari buruzko webgunean. Emakumeen esku-hartzearen aldeko webgunean hainbat iritzi eta albiste biltzen dira gai gorabeheratsu honen gair-

nean.

Jai askoren berri aurki dezakegu ziberespazioan, baina dudarik gabe, gaur bertan Iruñean hasiko direnak dira famatuena, eta atzerrian osperik handiena ondo irabazita-koak. Mundu osoko internautek sanferminen gaineko informazioa eskuratzen dute *Sanfermin.com* webgunearen bidez.

Helbideak:

- Jaiak.net
- www.jaiak.net
- Altz@net
- www.altz.a.net
- Irungo alardea
- i.am/irundarra
- San Fermin
- www.sanfermin.com

